

Gaurko egoera makurrean, Aitagurea edo Gure Aita esan, trikerkeri (Bizantinismo) utsa deritzait. Arako bestearen... "que si galgos, que si podencos"... ura zait batetan gogora. Guztiok euskeraz otoizkera zarrean baixe saiatuko bagina, gaitzerdi.

Beste iru euskal aldizkariak ba-dute laugarren nai, ta mamiz da jantziz aundikitar gainera. Sarbiderik alegikorrena damoiogun biotzez, euskal saill etze-gorriak urrituaz, igali-baratz ta lore landak ugaltzera datorkigun morrosko gazteari. Ongi etorri bada, ta Jainkoak dio bizi luse ta oparoa!

Eta... pakearen alde "Aitagure" bat.

" YAKIN ".-

Mardula sortu zaigu gure aldizkari berri au, Arantzazu'n egiña. Bigarren zenbakiaren "Ataria"n : "Elkartzen ari gera euskal-apaiz eta prailegaioek", diñote. "Alkartasuna!"-ren billa; onela, lan ohea burutzeko asmotan, alegia.

Praile-adar batzuetako gazteak eta apaizgaiak ere gogozko oldar sutuan, gure euskal-zugatzen altxumatu ta loratzen ari zaizkigunak; arnari yoriak uzta eder datorreneko. Gora itxaropena!

Bigarren eta irugarren zenbakiak eskuetaratu zaizkigu. Bietan goieneko gaiak ikusten ditugu erraz erabiliak, beren lenengo sailletan batez ere: "Teoloji-sailla" ta "Filosofi-sailla". Beste lau saillekin buruturik geratzen da gure aldizkari bikain au: "Kultur-sailla", "Antze ta Elerti", "Saski-Naski" ta "Elkar-Izketa".

Gai sakon oietan sartzen diran lan mamitsuak dirala-ta, lendabiziko bi sailletan batez ere, berealaxe oartu bear gai bakoitzerako peitzen diran itz bereziak; berezi ta esan-nai bakoitzerako egokiak izan ditezenak.

Eta bear onen aurrean, betiko ausia : gai goitu oiek erabiltzako orren bearrak ditugun itz berriak, euskeraz ala erderazko erroetatik eratzea; zein bide egokiena? Ba al dugu euskera ortarako emankorra? Aipatzen ditugun lan oiek irakurrita, baiezkoan egon bear, euskal-itza askoren esan-nai berezia ofen ongi ta argi azterturik baita. Bertan esaten danez, oso egokia, eiki, filosofiaren iztegi berezia egitea.

Ontan gaude geu ere; oso egoki, bai, geron gardiz, orrelakoa egitea; ez, ala ere, gai bakr batentzat baka-rrik, gai guzietarako baizik, mallaz-malla ongi eratuta-ko egitarau baten araberez.

Asieran adierazi dugunez, gure itxaropena zabaldu zaigu atsegiñez gazte adoretzu auek euskeraren alde orren gartsuki lanean murgiltzen ikustean; biotz on eta sutsu oien maitasunaz, gure izkuntza zaar onek indar berri ta aundia artuko duela ziur gaude. Ar-bitzate orrengatik, lankide guzti oiek barne-barnetik igorri nai dizkiegun gure txalo gartsuenak.

E. D.

" E U Z K O G O G O A " (Uztaila-Dagonilla, 1957)

Zorionez, kezka ginduzken aldizkari eder au beti bezela apain eta mamitsu eldu zaigu. " Aldizkari au iasoten enebalako, kezka bixi bat nuen aspaldi: aienatu ete zan, bedarrez iantzi ete iakun ba berriz ere baratza?" Onela dio batek "Irakurlearen txokoan" eskutitz-bidez. Geu ere onelaxe artega geunden.

Idazlan egoki ta polittak ere ba-dira bertan. Olerki ukigarri asko ere bai. Zaitegi Jaunak Sopokel'en antzerki oso bat damaigu bertan euskerara obeto-ezin itzulia. "Tarakingo Emaztekiak" du idazpuru. Gure Zaitegi ospetsua zoriondu bearrean gera euskaldunok eladetar elerti-filosofiak euskeraratzen ari zaigulako. Bestelako idazlan politak ere ba-ditu. "Tellagorri" Pio Baroja'renetik Etxaniz'tar Nemesi'k euskeraratua. "Txillardegiren" "Taupadak" ere egoki datoz ta iakingarri. Etienne Salaberry'ren